



ARESOko UDALA

BATZAR ERABAKIAREN JAKINARAZPENA NOTIFICACIÓN DE ACUERDO PLENARIO

Garazi Lopez Villanueva, Aresoko Udaleko Idazkaria, neronek ziurtatuta:
Garazi Lopez Villanueva, Secretaria del Ayuntamiento de Areso, certifico:

Aresoko Udalak 2022ko abuztuaren 1ean ospatutako batzarrean, besteak beste, honako erabakia hartu zuen:

4. “Deialdirik gabeko prozedura negoziatu bidez ESKOL-ETXEKO OBREN ESLEIPENA

a) Azaldutakoa:

Aresoko Udalak 2022ko apirilak 5ean ospatutako Osoko Bilkuran, aho batez onartu zen Eskol-etxeke lehenengo solairuaren ekialdeko ertzaren berritze lanen obren kontratazioa, prozedura irekia jarraituko zuen lizitazioa prozeduraren hasiera onartuz.

2022ko abuztuak 1ean Aresoko Udalak ospatutako osoko bilkuran inolako eskaintzarik aurkeztu ez zela konprobatu eta aho batez prozedura huts deklaratu du.

2022ko uztailaren 14an CONSTRUCCIONES EQUIZA MEDRANO S.L. enpresak udal idazkariaren emailera honako mezua bidali zuen:

Hemos podido ver en el Portal de Contratación de Navarra que se celebró un procedimiento de licitación de las obras para la rehabilitación de la primera planta de la skol-etxea, y viendo los pliegos reguladores de la contratación, estaríamos interesados en realizar las obras.

Ya nos diran si hay posibilidad al respecto.

2022ko uztailaren 29an, enpresak Pleguekin bat datorren aurrekontua aurkeztu zuen, 112.026,80 euroko zenbatekoan (BEZa barne)

APLIKATU BEHARREKO LEGEDIA:

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, 75.4 artikulua:
“salbuespenez, espedientearen inguruabarrengatik, lehia posible ez den kasuetan, ezintasun horren arrazoiak justifikazio-txostenean adieraziko dira, zeinak agertuko baititu erantzun nahi zaien premien izaera eta hedadura, horiek



ARESOko UDALA

asetzeari nola doitzen zaien xedea, eta adjudikazio-hartzailea kontratatzeko hautaturiko prozeduraren justifikazio xehakatua.

Kasu horietan, eskaintza jasotzeko ez da beharrezkoa izanen kontratazio-mahaiaren parte-hartzea, ez eta Nafarroako Lizitazio Elektronikoen Plataforma erabiltzea ere. Espedientean jaso beharrekoak dira kontratua exekutatzeko baldintzak eta adjudikazio-hartzaileak idatziz adierazitako onarpena. Zilegi izanen da egintza bakarrean espedientea eta gastua onetsi eta kontratua adjudikatzea.”

Eskol-etxeko kontratazioaren obren espedientean txosten horiek guztiak biltzen dira, hala nola lizitazio prozeduraren aldean eskubide eta betebeharren alderdi juridiko, administratibo eta ekonomikoak zehazten dituzten kontratazioaren plegu arautzaileak ere..

b) Erabakia: Bertaratutakoek honakoa aho betez onartzen dute:

LEHENENGOA.- Lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatua onartu eta espedientea eta bertan aurreikusten den 112.026,80 euroko GASTUA ONESTEA, Aresoko udalaren 2022. urterako aurrekontuetako partida honetan zorduntzeko:

1 3331 6320003 Eskol Etxea: erabilera anitzeko gela: 112.026,80 euro

BIGARRENA.- CONSTRUCCIONES EQUIZA MEDRANO S.L enpresak aurkeztutako aurrekontua onartu eta Eskol-etxeko lehenengo solairuaren ekialdeko ertza berritze lanak enpresa horren aldeko ESLEIPENA ONARTZEA, 94.584,13 euroko kantidadean (BEZ-a kanpo).

HIRUGARRENA.- Kontratua sinatu aurretik, esleipen honen jakinarazpena jaso eta ondorengo zazpi egunetan, Pleguen 14. atalak arautzen duen moduan enpresak adjudikazio prezioaren % 4a aurkeztu beharko du, hau da, 3.783,37 euro, hala nola pleguen 22. Atalak arautzen dituen dokumentu guztiak, hau da:

1. Justificante de haber consignado a favor del Ayuntamiento de Areso la garantía definitiva.
2. Póliza de seguro de responsabilidad civil. A tal efecto presentará un certificado auténtico de la Compañía aseguradora que acredite la existencia y vigencia del seguro señalando expresamente la cobertura de la responsabilidad civil básica, explotación, inmobiliaria, subsidiaria y post- trabajos, que cubra como mínimo el tiempo de ejecución de la obra y el plazo de tres años (3) desde el acta de recepción de las obras, indicando el capital asegurado por siniestro y año de seguro. Así mismo se certificará la disposición y vigencia de una Póliza de Seguro "Todo Riesgo Construcción" que comprenda el periodo de ejecución de la obra, con capital asegurado por el importe de la obra.



ARESOko UDALA

3. En el caso de que se trate de una unión temporal de empresas las escrituras de constitución de la misma cuya duración será coincidente con la del contrato hasta su extinción.

4. Compromiso expreso suscrito con Centros Especiales de Empleo y/o Empresas de Inserción relativo a las subcontrataciones incluidas en la oferta presentada, indicando el porcentaje del precio de adjudicación y las prestaciones a las que se refiere.

LAUGARRENA.- Obren zuzendaritza fakultatiboa Memoria tekniko idatzi zuen Udal arkitektuak hartuko du bere gain.

BOSTGARRENA.- Akordio hau kontratuaren kudeatzaile unitateari eta idazkariari helaraztea, bere ondorioak sor ditzan eta Nafarroako lizitazio elektronikoaren plataforman argitaratuz, lizitazioari hasiera eman dadin.

SEIGARRENA.- Akordio hau udal kontu-hartzailetzari helaraztea, bere ondorioak sor ditzan”

Areson, 2022ko abuztuaren 1ean
En Areso, a 1 de agosto de 2022

Alkatea/Alcalde
Jose Otermin Echarri

Idazkaria/Secretaria
Garazi Lopez Villanueva



ARESOko UDALA
